

HEZKUNTZAKO
PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA
PROIEKTUA

“HIZTUN HIRUELEDUNAK KOMUNIKAZIORAKO TREBATZEN,
TEKNOLOGIA BERRIETAZ BALIATURIK,
BIZIKIDETZA OSASUNTSU BATEN MARKOAN”

AMEZKETAKO ZUMADI LHI

2012ko MAIATZEAN

AURKIBIDEA

	Orr.
0.- Proiektuaren izenburua.	3
1.- Ikastetxea hobetzeko planaren ezaugarrietara egokitzea proiektua.	3
2.- Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea.	
2.1.- Irakaskuntza - eta ikaskuntza - prozesuak hobetzeko planteamendua.	4
2.2.- Epe erdira egindako planteamendu estrategikoa.	7
2.3.- Zein helburu jartzen diren eremuetan hautemandako beharretarako.	8
3.- Aurreikusitako prestakuntza – eta berrikuntza – jarduerak.	
3.1.- Tresna digitalaren erabilpenean trebatzea.	10
3.2.- Elkarbizitza eskolan: gatazkak eraldatzeko prozedurak Haur eta Lehen Hezkuntzan.	14
3.3.- Proiektu telematikoak: Pelutxe eta Asmakilo.	17
3.4.- Ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi.	22
4.- Aurrekontua.	
4.1.- Justifikatzea.	31
4.2.- Xehatzea.	
5.- Aurreikusitako jarraipen eta ebaluazio prozesua.	32
5.1.- Faseak.	
5.2.- Irizpideak eta adierazleak.	
5.3.- Tresnak.	
6.- Jardueren ordu kopurua.	35
7.- Proiektuen laburpen koadroa.	36

0.- PROIEKTUAREN IZENBURUA:

HIZTUN HIRUELEDUNAK KOMUNIKAZIORAKO TREBATZEN, TEKNOLOGIA BERRIETAZ BALIATURIK, BIZIKIDETZA OSASUNTSU BATEN MARKOAN.

1.- IKASTETXEA HOBETZEKO PLANAREN EZAUGARRIETARA EGOKITZEA PROIEKTUA.

Azkeneko 3 ikasturteotan gure ikastetxean burutu den diagnostiko-ebaluazioaren prozesua kontutan harturik, bertan jaso ditugun emaitzak berrikusi ditugu, eta horien ondorioz hauteman ziren beharrei erantzuteko asmoz sortu dugu Hobekuntzarako Esku Hartze Plana ere aztertu dugu berriro.

Diagnostiko-ebaluazioan ebaluatu diren arloak hauek izan dira:

- Urtero Euskara, Gaztelania eta Matematika
- Ingurunea, Hiritartasuna eta Ingelesa, orden honetan eta urte bakoitzean bat neurtu da.

Matematika, Ingurunea eta Hiritartasuna arloetan emaitza onak jaso ditugu eta orain arteko mailari eusten saiatzea, orain arte bezala lanean jarraitzea erabaki dugu., arreta galdu gabe, metodologia aldetik kooperatzen ikastea bultzatuz eta teknologia berriak geletako dinamiketan integratuz.

Hiru hizkuntzetan jasotako emaitzekin, ordea, gure indarrak bereziki hor zentratzearen garrantzia izan zen hasieratik nagusitu zen ideia. Gure ikasleen euskara maila ona den arren, eta interdependentziaren teoria kontutan harturik, oinarrizkoa den gure ama hizkuntza indartzen eta aberasten den heinean, beste hizkuntzetan trebatzerakoan eragin zuzena du, prozesua errazten du eta hizkuntza desberdinen erabilpenean gaitasuna hobetzera ahalbideratzen du. Hori horrela ulertzen dugunez eta gure ikasleen euskararen gaitasuna indartzeko, eskaintzen dizkiegun jarduerak eta baliabideak ugaritzea erabaki dugu, dimentsio desberdinen garapena bultzatzeko asmoz.

Gaztelania eta Ingelesa arloetan emaitzak hobetzea da gure helburu nagusia eta horretarako ahozkoa, irakurketa eta idazketa dimentsioetan Euskararekin batera indartzeko intentzio sendoa dugu.

Hobekuntzarako Esku Hartze Planean 3 lan ildo markatu ziren hasieratik, lehenetsunaren arabera hauexek zirelarik:

- Ahozkoaren eta irakurritakoaren ulermena, ahots eta erregistro desberdinekin ulermena garatzeko ariketak.
- Eskola liburu, CD, DVD eta abarrez hornitzen jarraitzea.
- Idazketa, sormena eta hausnarketa eskatzen duten testu idatziak eginaraztea.

Diagnostiko-ebaluazio prozesu horretan zehar gure irakaskuntza-ikaskuntza praktikan puntu indartsuak eta hobetu beharrekoak isladatu ziren urteroko ikastetxeko txostenean, eta horiei erantzun egokia emateko intentzioarekin osatu genuen Hobetzeko Plana. Gaur egun bere bidea egiten uzten zaio, denbora eskainiz, emaitzak hobetzen diren edo ez pixkanaka ikusten dugun bitartean, hobekuntzen egonkortasuna bermatu nahiean. Aldi berean. Markatutako ildoetatik begirada kendu gabe, irakasle on formakuntzari zuzentzen diogu bereziki arreta, paraleloki eta elkar elikatzen duten dinamika baten barruan : **Hobeto komunikatzeko estrategiak / Formakuntza** . Ideia hori da, hain zuzen ere, Formakuntza Proiektu honen xedea.

2.- PROIEKTUA TESTUINGURUAN JARTZEA ETA JUSTIFIKATZEA:

2.1.- IRAKASKUNTZA – IKASKUNTZA PROZESUAK HOBETZEKO PLANTEAMENDUA.

Aurreko puntuan azaldutakoari loturik eta jarraipena emanez, esan genezake gure ikastetxean irakaskuntza – ikaskuntza prozesuen inguruan etengabe ari garela behatzen, hausnartzen eta estrategia desberdinen bila. Prozesuak aberasgarriak eta eraginkorrak izatea nahi dugu eta bilatze lan horretan ongi etorriak dira kanpotik egiten zaizkigun diagnostiko-ebaluazioen emaitzak, arlo desberdinetan egiten dugun formakuntza eta guzti horren azpian, oinarri gisa, motibazioa eta ilusioaren sua piztuta mantentzeko ahaleginak. Gure “motorra” martxan eusteko bizikidetzaz zaintzen dugu bereziki, eskola komunitatearen aniztasuna ikusiaz, eremu desberdinetako partaide guztien ongizateari lehentasuna emanez. Eguneroko harremanetarako tresna nagusia komunikazio eraginkorra eta esanguratsua dugu eta horretarako behar ditugun osagaietatik jabetzen ahaleginak egiten ditugu, formakuntzaren bidez. Garapen pertsonala ezinbestekoa da guzti hori bultzatzeko eta hortik dator neurri batetan proiektu honen helburetako bat.

Joan den urtean aurkeztu genuen proiektua ildo beretsuetatik abiatzen zen. Egin dugun memorian jasota daude egindako jarduerak, prozesuen balorazioak eta bakoitzari eman nahi zitzaion jarraipenari buruzko informazioa. Laburbilduz esan behar dugu 2011/12 ikasturte honetan burutu diren jarduerak gehienei jarraipena eman nahi zaiela, aurrerapausoak zehaztuz.

“Kalitatea sarean” proiektua dela eta, ez dugu gaurko egunean jarraituko dugun ala ez erabaki, denboraren antolaketan ez bait dugu erabaki non kokatu, baina aipatu behar da Joan den ikasturtean martxan jarri genuen Batzorde Pedagogikoak hartua duela Kudeaketarako Kalitate Sistemaren zaintza egiteko ardura, adostutako prozedurak beren epean betetzen direla ziurtatuz. Gustora gaude betetzen duen lanarekin. Bertan ikasketa burua dago, horrela zuzendaritza ordezkaria dago batzorde horretan.

Hezkuntzako prestakuntza eta berrikuntza proiektu hau burutzeko **4 jarduera desberdin** proposatzen ditugu:

- **Tresna digitalen erabilpenean trebatzen jarraitzea. Web orria osatzea.** Arlo honetan hasiak gara irakasle on artean formakuntza jasotzen eta hurrengo aspektu hauek aipatu beharrean gaude: gure abiapuntu maila orokorrean baxua izanik, poliki poliki aurreratzen dugula, elkarren artean barne formakuntza bultzatzean denon erritmoa kontutan hartzen dugula, tresna digitalen erabilpenean trebatzeko gogo handia dagoela taldean eta gure geletako dinamiketan ikasitakoa txertatu nahi dugula, disziplina edo arlo desberdinak uztartuz. Guzti honen ondorioz, aho batez ildo honi jarraipena ematea erabaki zen irakasle taldean.
- **Elkarbizitza eskolan: gatazkak eraldatzeko prozedurak Haur eta Lehen Hezkuntzan.** Ikasturte honetan heziketa sozioemozionalari loturiko burutu dugun formakuntzaren balorazioa egiterakoan oso maila altuan baloratu da antolaketa, gaia eta aho batez ildo honi jarraipena ematea adierazi dugu partaide orok.
- **Proiektu telematikoak: Pelutxe eta Asmakilo.** Berritzegunetik proposamena jaso bezain pronto, izena eman eta antolatuko dizkiguten jarduerekin hasteko asmoa dago.
- **Ikaskuntza kooperatiboa.** Formakuntza honen abiapuntua Berritzegunean izan bada ere, lana egiteko metodologia eta filosofia hori eskolan bertan etapa guztietara zabaldua dago jadanik eta oso argi dugu formakuntzarekin jarraitu nahi dugula. Entzumena, irakurketa, ulermena eta adierazpena taldean lantzen direnean indartu egiten dira eta bereziki hori da gure asmo sendoa.
- **Hizkuntzaren glotodidaktika.** Etengabeko formakuntza burutu nahi dugu, eguneratuz joan. Arlo honetan lortzen den guztia eragin zuzena du kurrikulumean dauden arlo guztiekin.

Aipatutako jarduera guzti horiekin ikasi dezakegunarekin komunikatzeko tresnak ugarituko zaizkigulakoan gaude eta lehenago esan dudana bezala, hori da proiektu honen xede nagusia. Ideia horri atxikituta, eskola komunitate honetan partaideak garen guztiontzat taldean lanean eta funtzionatzen trebatzen jarraitzea ere ez litzateke ondorio makala izango. Ezinbestekoak izaten diren gatazken aurrean estrategia berri gehiago eskuratzen baditugu, nola ez dugu gustora jarraituko gure eskola honetan !!!

Aurkezten ari garen proiektu honetan 2011/12 ikasturtean burutuko dugun berrikuntza eta formakuntza barruan aipatutako lau jarduera horiek zehaztuko ditugu eta aldi berean beste programa batzuetan parte hartzen jarraituko dugu. Ez ditugu hemen programa horiek zehaztuko, baina eskolako testuinguru formatzailea aipatzea interesgarria iruditzen zaigu, bertan proiektu honetan zehaztuko diren jarduera guztiak erabat txertaturik daudelako.

Hauek dira programak, epe erdirako planteatuta daudenak, Lasarteko Berritzegunetik jasotzen dugun laguntza eta gidaritzapean, ikasturte osoan zehar bertan antolatuta dauden mintegietan parte hartzearekin batera :

- **Hizkuntza Normalkuntzarako Plana (HNP).** Proiektu sendo baten barruan, transmisio on bat egiteko asmoak bultzatuta, datorren ikasturtean ekintza desberdinen artean IRALEko programa bat burutuko dugu eskolan bertan. Haur eta Gazteentzat euskal literaturaren inguruan izango da eta irakasleentzat zuzenduta. Proiektuaren arduradunak euskararen erabilpena aberatsa eta ugaria izan dadin zaintzen du etengabe, denon kontzientziak ukituaz eta mintegian parte hartzen jarraituko du ikasturte osoan zehar.
- **ESKOLA 2.0.** Eskolako IKTko dinamizatzailerak mintegian parte hartuko du, eskolako partaide guztiak kontutan hartuz, baliabide teknologikoak denoi gerturatzeko estrategiak biltzeko asmoak bultzatuta. Disziplina edo arlo guztiekin lotura du formakuntza honen barruan aplikatzen dena.
- **Elkarbizitza positiboa.** Arlo hau sendo mantentzeko beharretaz ederki jabetuta gaude, eguneroko harremanetan ezinbestekoak diren zailtasunei era positiboan aurre egiteko beharrari erantzun nahia oso sendoa da eta ezin dugu inolaz ere alde batera utzi. Formakuntza eskatzen dute gure kideak eta zuzendaritza talde honek aparteko garrantzia ematen dio eskaera horri. Honen gainean eraikitzen dugu irakaskunta-ikaskuntza prozesu osoa. **Bizikidetzaren Planaren** arduradunak mintegian parte hartzen jarraituko du ikasturte osoan zehar. Datorren ikasturtean jorratuko dituzten gaiak hauek izango dira: Ziberbullying, gelako kudeaketarako Golden 5 programaren proposamena, elkarbizitza planaren diagnostikoa eta genero plana. Horrekin batera **Elkarbizitza Behatokiaren** martxa ere zuzentzen du, eraginkortasuna bilatuz etengabe. Ez dugu ahaztu behar azkeneko bi ikasturteotan martxan izan dugun **Guraso Eskolak** bere jarraibidea izango duela, gurasoen partaidetza, inplikazioa eta jarraitzeko gogoia ikusirik.
- **Ikaskuntza kooperatiboa/kooperatzen ikasi.** Arduradunak mintegian parte hartzen du eta eskolan lan kooperatiboa zabaltzeko estrategiak azaltzen ditu. Gure metodologian aurrerapen nabarmena suposatzen ari da, eta pixkanaka arlo desberdinetan aplikatuz, taldean kooperatzen ikastea benetan interesgarria iruditzen ari zaigu.

Proiektu honetan proposatzen duguna **oinarrizko gaitasunen** lanketarekin loturik dago bete-betean. Aurrerago, jardueren zehaztapenera iristen garenean argiago ikus dezakegu. Halere, gaitasun horien aipamen hutsak ederki erakusten dizkigu loturak:

- 1.- Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.
- 2.- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- 3.- Matematikarako gaitasuna.
- 4.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- 5.- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- 6.- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- 7.- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- 8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

2.2. EPE ERDIRA EGINDAKO PLANTEAMENDU ESTRATEGIKOA.

Proiektu hau martxan dagoen dinamikaren jarraipena da. Lehenago aipatu dugun bezala gure ikastetxeko testuinguru formatzailearen barruan kokatzen da.

Duela 3 urte gure ikastetxean **Plan Estrategikoa** osatzera iritsi ginen, guraso, irakasle eta bestelako langileen parte hartzearekin. Prozesu bizia eta esanguratsua izan zen eta bertan denok elkarrekin momento hartako errealitatean kokaturik gerora begira jarriak genituen desioak, beharrak, kritika eraikitzaileak e.a. partekatu genituen. Lan interesgarri hartatik sortu zen 5 urtetara begira gure Plan Estrategiko hura. Horren arabera, zaindu eta bultzatu nahi ziren ildo nagusiak ezarri ziren, lehentasunaren arabera ordenaturik.

Hala nola:

- 1.- Hizkuntzaren Normalkuntza Plana (HNP).
- 2.- Elkarbizitza positiboa.
- 3.- Teknologia berrien erabilpena.
- 4.- Metodologia berrien ezarpena, eskola berritzailea.

Horrekin bat eginez, **Hezkuntza Departamendutik** iritsi zaizkigun hainbat eskaera eta eskaintzei erantzunez sortutako proiektuak daude martxan eta bat egiten dute aurreko puntuan azalduetakoekin, hau da, gure Plan Estrategikoan markatutakoekin. Epe erdirako daude planteatuta eta oinarrian proiektu sendoak daude, gure **Berritzegunetik** zuzenduak, bertan mintegien bidez **aholkularitza eta baliabideak** jasotzen ditugularik. Oso motibagarria izan da haseratik proiektu guzti horiek eskolako guraso zein irakasleen oniritzia jaso zutelako, garrantzitsutat jo izan direlako hasieratik eta benetako bultzada jasotzen dutelako ikastetxean.

Uste dugu argi ikus daitekela orain arte markatu dugun norabidea eta ibilbide horretan aipatzen ditugun proiektuak esanguratsuak direla.

Proiektu honetan zehaztuko ditugun jarduerak azkeneko bi ikasturteetan burutu direnen jarraipena dira. Eta ez da bukatzen. Bidea luzea da.

2.3. ZEIN HELBURU JARTZEN DIREN EREMUETAN HAUTEMANDAKO BEHARRETARAKO.

Lau eremu edo zutabetan oinarritzen da oraingo proiektu hau:

2.3.1. KOMUNIKAZIOAREN EREMUAN	2.3.2. BIZIKIDETZAREN EREMUAN
<p>* Gure ikasleek euskaraz testu mota desberdinen ulermen eta adierazpen maila (ahoz zein idatziz) aberastea eta gehiago indartzea. Orokorrean gaitasun maila ona erakusten dutela ikusirik eta hizkuntza nagusia dela jakinik, komunikatzeko gaitasuna indartzeaz gain, beste hizkuntzetan trebatzerakoan eragin zuzena egingo duelakoan gaude, prozesu hori erraztuko duelakoan ere (interdependentziaren teoria). Lanketa horrek hizkuntza desberdinen erabilpenean gaitasuna hobetzera ahalbideratuko luke.</p> <p>* Gaztelaniaz ulermena eta adierazpena, ahoz zein idatziz, hobetzea. Komunikaziorako jarrera aktiboa eta motibazioa piztea.</p> <p>* Ingelesean ulermena eta adierazpena, ahoz zein idatziz, hobetzea. Egoera komunikatibo erakargarriak eskaintzea, motibazioa pizteko modukoak.</p>	<p>* Gatazken aurrean irakasleok zein ikasleek aurrera egiteko, akordioetara iristeko estratejiak garatzea.</p> <p>* Irakasleok zein ikasleek elkarriketan aritzeko, errealitatea adierazteko, interpretatzeko eta ulertzeko, iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko gaitasunean trebatzen jarraitzea. Etikadun pertsonak nahi ditugu.</p>

2.3.3. TEKNOLOGIA BERRIEN EREMUAN	2.3.4. IKASTEN IKASTEKO GAITASUNAREN EREMUAN
<ul style="list-style-type: none"> * Ikastetxean web orria sortzea eta gure erakuslechio bat bihurtzea. Bertan gure jarduerak, bizipenak, iritziak... isladatzea eta interesa duen edonorekin partekatzea. Gurasoen inplikazioa bultzatzea. * Teknologia berrien erabilpenean trebatzen jarraitzea; informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzea. * Tresna digitalen erabilpenean trebatzen jarraitzea: 9ideo kamara, soinu grabatzailea, argazki kamara... * Pelutxe eta Asmakilo proiektu telematikoetan parte hartzea, inguruko beste ikastetxeekin harremanak sustatuz, komunikatzeko tresna gisa erabiliaz. 	<ul style="list-style-type: none"> *Gure ikasleak elkarrekintzan aritzea, hurbileko inguruarekin integrazteko bidean eta pentsamendu prozesuak garatuz. * Ikasleak pentsamendu estrategikoa garatzea, lankidetzan jarduteko ahalmena garatzea eta baita bere burua ebaluatzekoa ere. * Ikasleak erabakiak hartzeko gai izatea eta arazoak konpontzeko gaitasuna garatzea. * Eremu honi lotuta Ikaskuntza Kooperatiboa/Kooperatzen Ikasi da proiektu nagusia.

Lau zutabe nagusi horiek , gure ikastetxeak duen testuinguruan kokatzen dira eta hor barruan beste ekimen batzuen jarraipena aurreiskustean da,. Hala nola: IRALE, ESKOLA 2.0, eta elkarbizitza positiboa.

3.- AURREIKUSITAKO PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA JARDUERAK.

3.1.- TRESNA DIGITALEN ERABILPENEAN TREBATZEA

3.1.1.- HELBURUAK.	3.1.2.- JARDUERAK.
<p>*Ikastetxean sortu berria dugun web orria osatu, gurasoei zabaldu, dinamizatu.</p> <p>* Euskara, gaztelania eta ingelera lantzerakoan, martxan jartzen diren proiektuetan eta ikastetxeko ospakizunetan soinu eta irudi digitalen erabilpena txertatu.</p> <p>* Irakasle on artean barne formakuntza burutu, elkarren artean erakutsiaz aurrerapausoak emanez.</p> <p>* Interneten erabilpenaren inguruan gurasoentzat informazio saio bat antolatu.</p>	<p>* Web orria ezagutzeko eta osatzen hasteko 2 saio burutuko dira.</p> <p>* Gurasoei web orria aurkezteko saio bat antolatuko dugu, proiektu honen arduraduna (zuzendaria) eta web orriaren 2 arduradunen eskutik. Aurkezteaz gain, beraien parte hartzea ere adostuko dugu, elkarrekin, beren atala ikasturtean zehar osatuz joan daitezen gonbidapena luzatuz.</p> <p>* Soinu grabatzaileak, bideo kamarak eta argazki kamarak erabiliaz soinu eta irudiak jaso arlo desberdinetako saioetan eta ikastetxeko ospakizunetan, ondoren CD eta DVDak egiteko, programa desberdinak erabiliaz: Movie Maker, Power Point, Photostory... Lan horietan aritzeko 6 saio antolatuko dira.</p> <p>* Ikasleen partehartzearekin ekoiztutako proiektu digitalak besteei erakusteko saioak antolatuko dira.</p> <p>* Interneten erabilpenaren inguruan gurasoentzat informazio saio bat antolatu., aditu baten eskutik.</p>

3.1.3.- DENBORALIZAZIOA.

Ikasturte osoan zehar asteazken arratsaldeak ikaslerik gabekoak ditugu eta saio gehienak formakuntzarako gordetzen ditugu. 2 orduko saioak izaten dira. Lanordu osoarekin ari garen irakasleok hartzen dugu parte. Besteie parte hartzeko aukera eskaintzen zaie.

1. <u>hiruhilabetean</u>		2. <u>hiruhilabetean</u>	
Irailaren 19 eta 26ean Web orriaren aurkezpena eta antolaketa irakasleonean. 2 orduko 2 saio, asteazken arratsaldetan, osotara 4 ordu.	Urriko 1. astean Web orriaren aurkezpena eta antolaketa gurasoen artean. 2 orduko saio bat eskolako ordutegi barruan.	Tresna digitalen erabilpenean trebatzen, irakasleonean arteko barne formakuntza. Otsailetik aurrera 6 asteazken arratsaldetan, osotara 12 ordu.	Interneten erabilpenaren inguruan informazio saio bat gurasoentzat. 2 orduko saio bat, eskolako ordutegi barruan.

3.1.4.- LAN METODOLOGIA

- Web orriak bi arduradun izango ditu eta ikasturte hasieran irakaslegoa bi saioetan bilduko du orriaren aurkezpena egiteko, atalak erakutsiaz eta ikasturtean zehar nola osatu dezakegunaren inguruan proposamenak egin eta denon artean adosteko. Ikasleek ekarpenak egiteko aukera tutore eta espezialisten esku geratuko da, gela eta eskolako jarduerak beren lekua izango dutelarik.
- Urrian aipatutako arduradunek gurasoekin aurkezpen saio bat egingo dute, nahi duen orori aukera irekia eskainiaz; gurasoei beren atala erakutsiko diete eta hortik bi arduradunen esku geratuko da atal horren osaketa. 2 guraso eta 2 irakasle arduradunen artean koordinaketa antolatuko da.
- Otsailetik aurrera irakasleonean artean barne formakuntza burutuko da, aurreko ikasturtearen modura, tresna digitalekin lan praktikoak egiteko. 3 edo 4 kideetako taldeetan elkartuz, elkarrekin zein proiektu burutu nahi duten erabakiko da, formakuntza honetan koordinatzaile gisa arituko denak “apunteak” banatuko ditu eta ahal duen neurrian laguntza ematen saiatuko da. Berdin egingo dute talde bakoitzean gauza batetan edo bestetan dakitenek. Elkarren artean dakiguna partekatzea da helburua.

Lan praktikoa burutzerakoan soinu grabatzaileak, eta bideo eta argazki kamarak erabiliko dira eta geletan lantzen diren gai desberdinen inguruan sortuko dira era digitalean euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eginiko ekoizpenak. Azkenean CD eta DVD formatoan geratuko dira, formato idatziekin osagarri gisa, web orrirako batzuetan, beste geletan erakusteko besteetan eta baita familiei banatzeko ere.

- Interneten erabilpenari buruzko saioa gurasoei eskainiko zaie, informatiboa izango da eta beraien kezka jaso ondoren, erantzunak ematen saiatuko dira etortzen zaizkigun arduradunak. Saioa antolatu aurretik emaileei programa eskatuko zaie, gurasoei bereziki zer jakin nahi duten galdetuko zaie eta saioaren edukiak azken horien interesetara egokitzen saiatuko gara.

3.1.5.- IRAKASLEEN INPLIKAZIOA ETA ARDURADUNAK

Lanordu osoarekin ari diren irakasle guztiak parte hartuko dute asteazken arratsaldeetako saioetan. Lanordua murriztua dutenek irakas orduekin betea izango dute bere ordutegia. Parte hartzeko behartuta ez dauden guztiei bertan aritzeko aukera eskainiko zaie.

Arratsalde hauetako saioen koordinatzailea ikastetxeko IKT arduraduna izango da. Saioen antolaketan partaide guztien jakinminak eta gaitasun mailak hartuko dira kontutan.

Web orriaren arduradunak bi irakasle izango dira eta horiek koordinatuko dituzte pentsatuta dauden jarduerak.

Arduradun nagusia zuzendaria izango da.

3.1.6. - EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK

* Web orriarekiko iritzia jasoko da hasierako aurkezpenean eta martxan jartzen dugunean berriro. Iritzi hori guraso eta irakasleei eskatuko zaie. Ikasturte bukaeran inkesta baten bidez balorazioa egingo da.

* Web orrian eskolan parte hartzen duen talde bakoitzak parte hartutako ekintzetan jasotako irudiak eta grabaketak 2. Hiruhilabete bukaeran txertatu diren baloratuko da. Orrian jasotzen diren lanak hiru hizkuntzetan egon behar dute. Gaztelaniaz eta ingelesez gutxienez ekoizpen bana.

* Asteazken arratsaldetako formakuntza saioetan lanordu osoarekin ari diren irakasleek gutxienez %80 ean bertaratzearekin bete beharko dute.

*Irakaslegoaren asebetetze maila baloratzeko ebaluazio orri bat pasatuko zaie formakuntzako saioen ondoren. Datuak informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa emango dute eta parte hartzaileei horren berri emango zaie.

* Interneten erabilpenari buruz gurasoei eskainiko zaien saioaren ondoren, inkesta labur baten bidez duten iritzia eskatuko zaie eta baloratuko da. Balorapena numerikoa ere izango da eta 0tik 10era gutxienez 5eko media lortu behar da saioa egokitzat emateko.

3.1.7. – HEZKUNTZA SAILEKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK ETA BALIABIDEAK ERABILTZEA

Hiru multzotan bilduko genituzke Hezkuntza Sailak eskaintzen dizkiguten baliabideak eta ezinbestekoa zaigu guzti horien esker ona adieraztea:

- Ekipo informatikoa eta honekiko mantenu teknikoa, CAUren bidez.
- Formakuntza eta berrikuntza proiektuetatik azken urte hauetan jasotzen ari garen diru laguntzari esker, besteak beste, tresna digitalak ari gara erosten pixkanaka.
- Eskola 2.0 programari esker gure ikastetxeko IKT arduradunak aholkularitza teknikoa eta baliabide aldetik informazioa jasotzeko aukera du eta modu horretan irakaslegoarekin koordinaketa lana eraginkorra eta funtzionala egin dezake.

3.2. – ELKARBIZITZA ESKOLAN: GATAZKAK ERALDATZEKO PROZEDURAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN

3.2.1. – HELBURUAK	3.2.2. – JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako Elkarbizitza Eredu Globala eta esku-hartze programak ezagutu. • Elkarlanean oinarritutko gatazkak ebazteko prozesuen aplikazioa aztertu ikastetxearen eguneroko testuinguruan. • Arazoak konpontzeko trebetasun giltzarriak identifikatu. • Negoziaketa formal eta informaleko prozesuak praktikatu. • Elkarriketa hezitzaileko prozesua praktikatu. • Bitartekaritza informalaren prozesuak eskolan praktikatu. • Gelako asanbladaren prozedura ezagutu. 	<ul style="list-style-type: none"> • 6 saioetan aditu baten gidaritzapean aipaturiko helburuetan jasotako gaien inguruan tailer teoriko-praktikoa burutu. • Gaiekin loturiko bibliografia eskainiko da partaideen artean. • Tailerrean ikusten denetatik ikastetxean hainbat beharrei erantzuteko ideiak martxan jarri, bideratu : Elkarbizitzako Behatokian ikasleen presentzia indartu, bitartekaritza, geletako asanbladetan aldaketaren bat egin, negoziazioan aurrera pausoren bat eman...

3.2.3. – DENBORALIZAZIOA.

1. hiruhilabetean, urritik aurrera, 2 ordutako 6 saio antolatuko dira aipaturako tailerra burutzeko. Asteazken arratsaldetan izango dira eta osotara 12 ordutako formakuntza moduloa izango da.

3.2.4. – LAN METODOLOGIA.

GEUZ taldeko aditu bat izango da tailerra gidatuko duena, formakuntza teoriko zein praktikoa gure eskura jarriko duena eta taldea dinamizatuko duena.

Tailer honetan, bakarkako edo taldeko esperimentazioan oinarritzen den ikaskuntza proposatzen da. Helburu hau lortzeko azalpen teorikoak eta talde dinamikak erabiliko dira, non, rol jokoak, elkarrizketak eta eztabaidak tarte garrantzitsu bat izango dute. Lan hau aurrera eramateko, hau da, bizitutako esperientziaren bidez ikasketa jaso ahal izateko, taldearen partaidetza ezinbestekoa izango da.

Saio bakoitzean uztartuko dira teoria eta lan praktikoa. Ikastetxean egunerokotasunean ematen diren gatazkak tratatuko dira., lantzen dena benetan esanguratsua izan dadin eta benetako erantzunak jasotzeko aukerak izan ditzagun.

3.2.5. – IRAKASLEEN INPLIKAZIOA ETA ARDURADUNAK

Lanordu osoarekin ari diren irakasle guztiak parte hartuko dute asteazken arratsaldeetako saioetan. Lanordua murriztua dutenek irakas orduekin 15teia izango dute bere ordutegia. Parte hartzeko behartuta ez dauden guztiei bertan aritzeko aukera eskainiko zaie.

Arratsalde hauetako saioen koordinatzailea ikastetxeko zuzendaria izango da arduraduna.

3.2.6. – EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK

Alde batetik partaideen presentzia baloratuko da, gutxienez %80ean bertaratzea eman behar da nahikotzat jotzeko.

Bestalde, partaideen balorapen pertsonala eskatu eta aztertuko da. Inkesta personal baten bidez jasoko da iritzi pertsonala, jarraitzearen beharra, iradokizunak... Emaitzak kualitatiboki eta kuantitatiboki baloratuko dira. Datuak bildu ondoren, taldeari adieraziko zaio.

3.2.7. – HEZKUNTZA SAILEKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK ETA BALIABIDEAK ERABILTZEA PRESTATZEKO/BERRITZEKO PROZESUAN.

Gai honi lotuta, Berritzegunean Elkarbizitzaren inguruan urtero antolatzen den mintegia aipatuko nuke. Gure ikastetxeko Elkarbizitza Planaren arduradunak parte hartzen du mintegi horretan eta horri esker Planaren jarraipena egiten da, adostokia martxan jarri zen bere momentuan eta Elkarbizitza Behatokiaren jarraipena ere egiten da ikasturte osoan zehar.

Guzti horrek gure arteko Bizikidetzaren zaintzen dela bermatzen dugu, dinamika desberdinek aurrerapausoak ematera eramaten gaitu eta eskolako partaide guztiak sentitzen gara inplikatuak Bizikidetzaren zaintza horretan.

Aipatu dugun guztia osatu nahian, formakuntza saio hauekin irakasle guztiok zuzenean formatzea nahi dugu, bitartekaritzarik gabe, teorikoki zuzenean ikasteko aukera eskainiz eta pertsonalki zer esanik ez, bertan burutuko ditugun jardueretan murgildurik sakonago “ukituak” izan gaitezen, bizipen propioen bidez era esanguratsu batetan jabetuko garelakoan gaude.

3.3.1. – PROIEKTU TELEMATIKOAK: PELUTXE ETA ASMAKILO

Bi proiektu berriztatzaile horiek teknologia berriekin dute lotura zuzena. Era berean idatzizko komunikazioa indartzeko ere tresna egokitzat ditugu. Gure Hobekuntza Planean jasotako jarduerekin osagarriak eta oso aproposak iruditzen zaizkigu, indartu egingo dutelako ikasleen idatziz adierazteko gaitasuna.

3.3.2. - HELBURUAK:

A) PELUTXE

- Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan teknologia berrien erabilpena sustatzea.
- Blogaren erabilpena integratzea gelako ohiko jarduerekin batera.
- Irakurketa eta idazketaren trataera telematika, ordenagailuaren bidez.
- Inguruko eskola batetako adin bereko beste ikasleak ezagutzea eta harremanak bultzatzea.

B) ASMAKILO

- * Ikasle ezberdinen arteko harremanak zabaltzea.
- * Hizkuntza sormena eta alderdi ludikoa sustatzea.
- * Igarkizun testua lantzea.
- * Herrietako aho korapiloak, jolasak, kantan eta bitxikeriak ezagutaraztea.
- * IKTak modu esanguratsuan erabiltzea.
- * Lankidetzak jarrerak bultzatzea.

3.3.3. - JARDUERAK:

A) PELUTXE

- Pelutxe proiektuaren arduraduna, Berritzegunetik, izena eman duten Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleen irakasleekin harremanetan jarriko da. Hasierako data jarriko du eta irakasleen artean bikoteak egitea proposatuko du. Irakasle bikoteak osatzen direnen arduradunari berri emango diote.
- Bikoteak eginak daudenean, Berritzegunean bilera orokor batetan parte hartuko dute, bertan proiektuari buruzko informazio zehatzagoa jasoko dute eta geletan bloga nola sortu eta nola erabili ikasiko dute.
- Irakasle bakoitzak bere gelarako pelutxezko panpin bat erosiiko du.

- Adostua duten egunetik aurrera pelutxe bakoitza bere gelako ikasleei aurkeztuko die, bere izena eta guzti, argazki bat aterako dio eta sortu berri duen blogean zintzilikatuko du, aurkezpena idatziaz.
- Hortik aurrera, gela bakoitzean irakasleek erabaki duten erritmoan eta konpromisoarekin blogean sartuko dira eta bertan taldean bizitzen dituzten egoera desberdinei buruzko argazkiak eta testuak zintzilikatuko dituzte.
- Bloga martxan jarri bezain pronto, gelako gurasoak bildu eta blogaren berri emango zaie, helbidea emanez eta nahi dutenean ireki eta bertan jarrita dauden argazkiak eta testuak ikusi ditzaten.
- Aurrerago, negu aldera, pelutxeak elkartuta dauden bi ikastetxeko pelutxeak trukatu dituzte eta fase berri batetan sartzen dira: hemendik aurrera gela batekoak besteari pelutxearen eta taldearen berri emanez blogean idazten jarraituko dute.
- Ikasturte bukaera baino lehen, pelutxe bakoitza bere hasierako ikasgelara itzuliko dute eta proiektua bukatutzat ematen da.

B) ASMAKILO

* Lan bilera: Partaideen lan-bilera egingo da Lasarteko Berritzegunean: aurkezpena, lan-planteamenduak, prestakuntza eta abar emango direlarik.

* Asmakilo pertsonaiaren aurkezpena:

Asmakilok lehenengo 2 astetan zenbait igarkizun proposatuko ditu, proiektua girotzearen, ikasleek BLOGean bertan erantzungo dutelarik.

Irakasleek laguntza euskarriak izango dituzte web orrian bertan.

* Taldearen aurkezpena: ikastalde bakoitzak bere aurkezpena egingo du BLOGean: testua, argazkia, bideoa... erantsiz.

* Ekarpena; ikasgelan asmakizun testua eta beste hainbat motako produkzioak burutuko dituzte: aho korapiloak, jolasak, bitxikeriak, kantak, olerkiak; ezagunak, moldatuak edota asmatutakoak.

Ikasleen ekarpenak BLOGean bilduko dira.

3.3.4. - DENBORALIZAZIOA:

A) PELUTXE

- 1. Hiruhilabetean Berritzegunean elkartuko dira partehartzaileak eta bikoteak egingo dira. Pelutxeak gelan sartuko dira eta bikote bakoitzak adostu duen modura komunikatuko dira 2 ikastetxeak. Gurasoei horren berri emango zaie, baita blogaren helbidea ere.
- 2. Hiruhilabetean pelutxeak trukatu dira eta lehen esan bezala, bikote bakoitzak adostu duen modura blogaren bidez komunikatuko dira. Argazkiak eta testuak jarriko dira.
- 3. Hiruhilabetean elkartutako 2 ikastetxeak egunpasa egiteko elkartuko dira eta bertan pelutxean berriro trukatu dituzte, bakoitza bere “etxera” itzuliaz.

B) ASMAKILO

- ASMAKILO lankidetzaren proiektua 6-8 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta horrexegatik LH1ean eta LH 2an eramango dugu aurrera.
- Lehenengo hiruhilekoan lan-bileretara joan, Asmakilo pertsonaiaren aurkezpena ikusi eta gure bi taldeen aurkezpenak egingo ditugu, bitartean Asmakilo proiektua ondo ezagutzeko denbora hartuko dugularik. Tarte honetan irakaslearen koordinazioa ezinbestekoa izango da.
- Bigarren hiruhilekoan ikasleen ekarpenak sartuko ditugu. Ikasgelan asmakizun testua eta beste hainbat otako produkzioak burutuko ditugu; ezagunak, moldatuak edota asmatutakoak, eta ikasleen ekarpenak BLOGean bilduko ditugu.
- Hirugarren hiruhilekoan ikasleen ekarpenekin jarraituko dugu, batzuetan gure asmakizunak zintzilikatuz eta besteetan gainerakoaren produkzioak erantzunez eta ezagutuz.
- Astero ordu beteko saioa eskeiniko diogu proiektu honi.

3.3.5. - LAN METODOLOGIA:

A) PELUTXE

- Hasiara batetan irakaslea Berritzeguneak proposatzen duenaren inguruan proiektuaren nondik norakoaz jabetuz joango da eta bikotea duen beste irakasle batekin lana nola egingo duten adostuko dute: beren erritmoa, zein eduki landuko dituzten, zein proiektu edo ekintza moten inguruan komunikatuko diren ikasleak... Bloga sortuko dute irakasleek, binaka.
- Gelako dinamikan beren pelutxea integratuko dute pixkanaka eta blogean gelako, eskolako, etxeko... bizipenak idatziz azalduko dituzte. Argazkiak ere sartuko dira, ahal bada idazten duten bakoitzean.
- Berdin egingo dute trukatu ondoren beste ikastetxeko pelutxea hartzen dutenean. Aitzaki horrekin, komunikazioa, harremana eta idazketa landuko dute. Libreki adierazten utziko zaie, beraien erara konta dezaten, nahi badute lagun batekin edo birekin elkartuta.
- Gurasoek prozesu horren berri izango dute ikasturte hasieratik eta bloga sortzen denean helbidea izango dute, nahi dutenean sartu irakurtzeko eta ikusteko.

B) ASMAKILO

- Ikasturte hasieran, Asmakilo pertsonaia girotzen joango da, igarkizunak bidaliz; ikasleek berehala jarraitzen diote, igarkizunak sortuz eta beste ikastetxeetako asmakilokideei erantzunez.. Honela, ikastetxeetako asmakilokide guztiak BLOGaren iruzkinen bitartez erantzuten eta asmatzen saiatzen dira, guztien arten elkarrekintza jatorra zabalduz. Erantzunak ez dira beti jakinak, bat baino gehiago izan daitezke. Tarteka ikasleek beste eskaintzen dizkiete bestelako produkzio multimedialak, euren parte hartzea saritzearren.

3.3.6. - IRAKASLEEN INPLIKAZIOA ETA ARDURADUNAK:

A) PELUTXE

PELUTXE lankidetzara proiektua 5 urteko ikasleei zuzendutako ON-line jarduera didaktikoa da, Eskola 2.0 markoan.

Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleen irakaslea izango da arduraduna eta inplikaturik.

B) ASMAKILO

ASMAKILO lankidetza proiektua 6-8 urteko ikasleei zuzendutako ON-line jarduera didaktikoa da, hau ere Eskola 2.0 markoan.

LH 1eko eta LH 2ko tutoreak izango dira arduradunak eta inplikatuak.

3.3.7. - EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK:

A) PELUTXE

Baloratuko den lehenengo gauza parte hartu duen irakasleak hasieran hartutako konpromezua ikasturte osoan bete duen ala ez izango da, hau da, pelutheen arteko trukaketak burutu dituzten eta sortutako blogean ikasleak motibatu idazteko dituen eta bloga hornituz joan diren.

Ikasleek erakutsi duten interesa eta komunikatzeko gogoia ere baloratuko da, informazio hori subjektiboa bada ere.

Gurasoak blogean sartu diren ala ez eta baiezko den kasuetan zer iruditu zaien ere jakingo da, inkesta txiki eta xume bat pasatuz.

B) ASMAKILO

-Irakasleek ikasturte hasieran hartutako konpromezua ikasturte osoan beten duten ala ez baloratuko da lehendabizi.

- Ikasleak idazteko eta irakurtzeko motibazioa erakutsi duten, bloga hornitzeko gogoia erakutsi duten baloratuko da ere.

- Gurasoak blogean sartu diren ala ez eta baiezko den kasuetan zer iruditu zaien ere jakingo da, inkesta txiki eta xume bat pasatuz.

3.3.8. – HEZKUNTZA SAILEKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK ETA BALIABIDEAK ERABILTZEA PRESTATZEKO/BERRITZEKO PROZESUAN

Kasu honetan eskaintza nagusia Berritzegunearena da. Hemendik luzatzen digute proiektu honetan parte hartzeko aukera deialdia eta baita aholkularitza eskaini ere. Hasieratik bukaera arte jasotzen dugu laguntza, argibideak eta parte hartzen ari garen eskolen artean komunikazioa errazteko foro bat ere irekitzen dute. Bertan gure arteko esperientziak partekatzeko aukera izaten dugu.

3.4.1. - IKASTEKO KOOPERATU ETA KOOPERATZEN IKASI

3.4.2. – HELBURUAK

- Ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi (IK/KI) proposamen metodologikoa indartuz jarraitu; Lehen Hezkuntzan sendotu eta Haur Hezkuntzan emandako pausuak indartu.
- Irakasle berrien formazioa antolatu eta eman.
- IK/KIren bi egoerak (hastapena eta zabaltzea) koordinatu.
- Parte hartzen duten ikasle guztien emaitzak hobetu. Arlo guztiak garrantzitsuak izan arren, hizkuntzei arreta berezia jarriko diegu.
- Ikastalde inklusiboak lortu.
- Irakaskuntza indibidualizatua garatu eta horrekin batera ikasle bakoitzaren autonomia.
- Oinarrizko gaitasunak lantzeko proposamen metodologiko bat frogatu eta ebaluatu. Komunikatzeko gaitasuna izango da, halere, bereziki zainduko duguna.
- Irakasleengan hausnarketa metodologikoa eragitea, onurak ikusiz.
- Ikasleen autoebaluazioa sustatu eta antolatu.
- Elkarbizitza hobetzea (kooperazioaz elkarbizitza lantzen baita).

3.4.3.- JARDUERAK

*** IRAKASLEAK**

- Etapaz, ziklo, maila eta arlo jakinetan, indarrean jarriko da IK/KI proposamen metodologikoa.
- IK/KI-ren bidez oinarrizko gaitasunak (konpetentziak) lantzen diren eta zenbat lantzen diren esperimendatuko da.
- IK/KI-a ezartzean, premia bereziko ikasleak besteekin batera arituko dira, berdintasunez eta era ekitatiboan (ikastalde inklusiboak).
- Irakasleen lan-taldean bi egoeretako irakasleak integratuko dira, hastapenekoak eta zabaltzekoak, alegia. Talde koordinatzaile honek, denbora-tarteak ordutegian zehaztuta izango ditu lanak era kooperatiboan adosteko (zer dinamika, zer egitura, programazio komuna, ebaluazio irizpideak, ebaluazio-aldaketak etab.) eta, aplikatu ondoren, balorazioak eta ebaluazioak egiteko.

-Klaustroak, esperimentazioaren martxa, aldaketen hausnarketa eta ondorio nagusiak konpartitzeko saioak burutuko ditu.

-Beste koordinazio guneetan (Berritzeguneko mintegian-eta) parte hartuko dugu, eta gure eskarmentua eskainiko diegu ikastetxe nola irakasle berriei.

-Ikastetxeko familiak eta ikasleak informatuta edukiko ditugu: ikasturte hasierako bileretan, entrebistetan, tutoretza orduetan...

-Irakasle berrien formazioa antolatuko dugu, ikastetxe barruan.

-Hilean behin, asteazken arratsaldeko formakuntza saioetan orduak eskeiniko dira barruko formazio-saio horietarako.

-Hiruhilean behin eta ikastetxeko beharrak eskatzen duen aldiro, orduak adostuko dira IK/KI lan-taldearen bilerak egiteko erreferentearekin.

-PT-aholkulariaren parte-hartzea areagotuko da, gela barruan eta kanpoan, beraiek ere, IK/KI proiektua gara dezaten.

* **IKASLEAK**

-Informazio-saioak antolatuko dira ikasleentzako: zer egin nahi den, nola, programa...

* **FAMILIAK**

-IK/KI-ren ezaugarrien eta onuren berri emango zaie, bileretan, entrebistetan, OOG-ean.

3.4.4. - DENBORALIZAZIOA

*** IRAILA**

- Ikasturteko asmoak finkatu eta azaldu, txosten osoa banatuz (bilera bat).
- Berriekin behar bezalako transmisio lana antolatu eta burutu (bi edo hiru saio).
- Geletan lehen kohesio ariketak adostu eta aplikatu.
- Haur Hezkuntzako irakasleekin bilera bereziak antolatu, Asteasuko eskolaren laguntzaz ikasitako dinamikak aurrera eramatearren.
- Berritzegunean gaiarekiko lotura egin (goiz bat).

*** URRIA**

- Geletan kohesio ariketak eta egiturak landuko dira.

*** AZAROA-ABENDUA**

- Berritzegunearekin harremanetan jarraituko dugu (goiz bat).
- Haur Hezkuntzako geletarako kohesio ariketa nahiz egitura egokiak aukeratu, ziurtatu eta aplikatzen hasiko dira.
- Lehen Hezkuntzako geletan lehen talde plana burutuko da.

*** URTARRILA-MARTXOA**

- Berritzeguneak eskaintzen dizkigun heziketarako nahiz sakontzeko aukerak aprobetxatuko ditugu (goiz pare bat).
- Haur Hezkuntzako geletan, talde planarekin lehen frogak egingo ditugu.
- Lehen Hezkuntzako geletan beste bi talde plan burutuko ditugu, koadernoak osatuz.
- Gainera, Lehen Hezkuntzako geletan, unitate didaktiko bana egitura kooperatiboan lantzen ahaleginduko gara.

* **APIRILA-EKAINA**

-Berritzegunearekin dugun loturari eutsiko diogu, hurrengo ikasturteko asmoak finkatuz (goiz pare bat).

-Haur Hezkuntzako geletan talde planaren froga berri bat egingo dugu eta baita horren balorazioa ere.

-Lehen Hezkuntzako geletan azken talde plana burutuko dugu.

-Ikasturteko memoria egingo dugu.

3.4.5. - LAN-METODOLOGIA

Lan kooperatiboari hasiera hasieratik heldu behar diogu, lehen astetik alegia. Ikaslerik gabeko lehen lau egunetako batean, **bilera orokor bat** egin behar dugu gai honekin, filosofia zertan datzan pixka bat esplikatu eta txostena banatuz.

Gainera, gai honetan berriak direnekin **transmisio lan egoki bat** egin beharko da **irailean**; eta horretarako koordinatzaileak hartu beharko du ardura nagusia.

Irakasleen prestakuntzarako ditugun orduetatik, hiruhileko bakoitzean **bi saio** beharko ditugu metodologia honetan aurreratzeko eta bide parekatua egiteko. Gainera, talde-kontzientzia sortuz, erabakiak elkarrekin hartu beharko ditugu eta elkarriketaren bidez pausuak sendotasunez emateko ziurtasuna lortu.

Ikaskuntza Kooperatiboko egitura berberak erabil daitezke bileretan aurrera egiteko, horrela, beraien balioaz jabetuz joango gara.

LABURREAN:

- Filosofia azaldu (bilera orokor batean).
- Transmisio lana (bi edo hiru bilera mugatu)
- Haur Hezkuntzara zabaltzea (bost edo sei bilera mugatu)
- Elkarrekin ezagutu eta eman beharreko pausuak (prestakuntzako bost arratsalde)
- Asteazkenetako etapa bileretarako aipamen berriak nahi errepikapenak eramango dira (ahaztu egiten baitira): kohesio ariketa berri bat, egitura berri bat, Berritzeguneko berri, egindako ariketa baten berri, iritziak, ezinak, azalpenak... Aukera dagoen guztietan egingo da aipamenen bat.

3.4.6. - IRAKASLEEN INPLIKAZIOA ETA ARDURADUNAK

*** IKASTETXEAN**

- Zuzendaritza-taldeak proiektuari bultzada ematea erabaki du, inplikaturata dago.
- Proiektua ikastetxeko urteko planean txertatuko da.
- Zuzendaritza-Taldeak proiektuaren informazioa zabalduko du eta asmoen berri emango du: batzorde pedagogikoan, zikloetan, mintegietan, klaustroan...
- Familiei ere ekintzaren berri emango zaie: gurasoen bileretan, bakarkako entrebistetan, Eskola Kontseiluan...
- Ikasleei ere bai.
- Proiektuaren koordinatzailea izendatu du (Agustin Amiano Gurrutxaga), eta bai Berritzeguneko bileretara joateko baita barruko koordinazio-bileretarako orduak (1,5) izango ditu astean.
- Lan-taldea osatuko da eta koordinatzeko (bilerak egiteko) aukerak izango ditu (astean ordubete).
- Zenbat ikasle, guztira: 120
- Parte hartuko duten ikastaldeentzako zerrenda: klaustro osoa.
- Guztira, inplikaturatutako irakasleak (kopurua): 13
- Zenbat tutore: 10

- PT/Kontsultorea, ingelerako irakaslea eta gorputz hezkuntzako irakaslea.
- Elkarbizitzako arduraduna inplikatuta dago.
- Zuzendaritza-taldeko kide bat, batzorde honetako partaide da.
- Familiei, ikasturte hasierako gelako bileran honen berri emango zaie eta aldi berean OOG-ko bileran ere bertako emaitzak aipatuko dira.

*** BERRITZEGUNEAN**

Mintegia eratuko da. Bertako aholkulari batek koordinatuko du. Hilero bilduko da. 9 saio, guztira.

Mintegi-saio arruntetara bertaratuko dira: ikastetxeko koordinatzailea eta (gomendagarria) premia berezietako irakaslea.

Aholkularitza, erreferentzia-aholkulariaren eskutik eskainiko da.

Material bilgunea: SITE-a erabiliko da (ikaskuntzakooperatiboa.oriapat.org). bertan, IK/KIren aplikaziorako behar den materiala zintzilikatuko da: dinamikak, egiturak, testuak, txantiloak, ereduak, bibliografia etab.

3.4.7. - EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK

Ikasturtean eta ikasturte-amaieran, ondorengo ebaluazio atalak beteko dira:

A- PROIEKTUAREN BERAREN EBALUAZIOA

A.1-PROIEKTUAREN IBILBIDEA

A.1.1- Zein eduki garatu diren

A.1.2 -Proiektuaren aplikazioaren ondorioz hartu diren akordio nagusiak:

A.1.2.1 -Curriculumari dagokionez

A.1.2.2 -Ikastetxearen antolamenduari dagokionez

A.1.3 -Proiektuaren garapenean izandako gorabeherak

A.2.-HELBURUAK NORAINO ERDIETSI DIREN

A.2.1-Helburu orokorrak

HELBURUA ERDIETSI DEN(ASKO, NAHIKO, GUTXI, EZER EZ) ARRAZOIAK*

- Ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi (IK/KI) proposamen metodologikoa indartuz jarraitu; Lehen Hezkuntzan sendotu eta Haur Hezkuntzan emandako pausuak indartu.
- Irakasle berrien formazioa antolatu eta eman.
- IK/Kiren bi egoerak (hastapena eta zabaltzea) koordinatu.
- Parte hartzen duten ikasle guztien emaitzak hobetu (lantzen den arloan).
- Ikastalde inklusiboak lortu.
- Irakaskuntza indibidualizatua garatu eta horrekin batera ikasle bakoitzaren autonomia.
- Oinarrizko gaitasunak lantzeko proposamen metodologiko bat frogatu eta ebaluatu.
- Irakasleengan hausnarketa metodologikoa eragitea, onurak ikusiz.
- Ikasleen autoebaluazioa sustatu eta antolatu.
- Elkarbizitza hobetzea (kooperazioaz elkarbizitza lantzen baita).

A.2.2-Ekintzak

**EKINTZAK ERDIETSI DEN(ASKO, NAHIKO, GUTXI, EZER EZ)
ARRAZOIAK***

A.3-PARTE HARTU DUTEN AHOLKULARITZEN BALORAZIOA

AHOLKULARITZA / BALORAZIOA (O ONA / ONA / ESKASA / O ESK) /
ARRAZOIAK

A.4- PARTE HARTU DUTENEN PARTAIDETZA ETA INPLIKAZIOA

PARTAIDEA / INPLIKATU DEN (ASKO / NAHIKO / GUTXI / EZER EZ) /
ARRAZOIAK

Zuzendaritza Taldea, eskolako lan taldea, koordinatzailea, irakasleak, ikasleak...

A.5-ONDORIOAK ETA JARRAITZEKO PROPOSAMENAK

A.5.1-Proposamen metodologiko hau praktika ontzat jotzen al da ikastetxean?

BAI EZ

A.5.2-Baiezkoa bada, zein diren jarraitzeko proposamenak, 2012/2013 ikasturtean:

- o Etapa, maila, zikloa, arloa, eta aurreikusten den ikasle-kopurua.
- O Irakasleak : tutoreak, arlotakoak, Ptak...(kopurua)

- Materialak:

Interneteko helbideak eta mintegiaren blog-a.

Gaiari lotutako liburuak.

Euskaratutako materiala.

Ikasleentzako egokitutako materiala.

Mintegiaren inguruan sortzen dena.

4.- AURREKONTUA.

4.1.-JUSTIFIKATZEA

Proiektu honen lehenengo helburua formakuntza da; garapen pertsonalean aurrerapausoak emateko gogoari erantzun nahiak eraman gaitu jarduera desberdinen bidez formakuntza proiektu hau eratzera. Aholkularitzan aurreikusten dugun aurrekontua inbertsio moduan ikusten dugu, etekina lortzeko bide egoki bat, are gehiago irakasle taldean hautematen den jakinmina eta gogoia ikusirik.

Formakuntzarekin batera, berrikuntza da hurrengo helburua: irakaskuntza-ikaskuntzan praktika onak garatzea, ikasgeletan burutzen diren jardueretan txertatzea, arlo desberdinak hartuz metodologia berriak aplikatzea, tresna digitalak eta teknologia berriak erabiliz. Egitasmo honi lotuta, formatzeaz gain baliabide materialez hornitzen jarraitzea aurreikusten da (tresna digitalak, material kurrikularrak, liburuak...).

Eta guzti hori gauzatzeko irakasle goaren joan-etorriak ere aurreikusten dira, eskolatik kanpo eskura dugun aholkularitzarengana jo ahal izateko.

4.2. XEHETZEA.

JARDUERA	Aholkularitza	Material kurrikularra	Material teknologikoa	Gelarako materiala	Irakasleen gastuak (bidaiak)	Besteak (autobusa)
1-Tresna digitalak			500	100		
2-Gatazkak eraldatzeko prozedurak	1300	80				
3-Elkarbizitza positiboa mintegia	200	80			100	
3-Ikaskuntza kooperatiboa	200				100	
4-Pelutxe				50	80	80
5-Asmakilo				50	80	
OSOTARA 3000 euro	1700	160	500	200	360	80

5.- AURREIKUSITAKO JARRAIPEN ETA EBALUAZIO PROZESUA.

5.1.- FASEAK. IKASTURTEAN ZEHAR EGINGO DEN JARRAIPEN OROKORRA.

Ikasturte hasieran, irailean, martxan zeuden eta jartzera goazen proiektu guztien aurkezpena emango dugu irakasle guztien artean. Ezagutzen zutenak berriro gai honetan kokatzeko eta berriak gu nondik nora gabiltzan ikusteko. Helburua denak talde bat egitea da, kohesiorako lehenengo pauso gisa.

Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran, azkeneko asteazken arratsaldeetan, proiektu guztien errepeoa egingo da, arduradun bakoitzak berak koordinatzen duen jarduera nola doan azalduko duelarik.

Jarduera bakoitzak ebaluzio prozesu propio bat izango du, batzuetan hiruhilabete batetara mugatuko da, besteetan ikasturte osoan luzatuko delarik.

Gatazken eraldaketari buruzko ikastaro/tailerra, tresna digitalen erabilpenaren inguruko barne-formakuntza saioak eta Iraleko ikastaroa bukatzen diren egunean baloratuko dira, irakaslegoari inkesta bat betetzea eskatuz. Talde osoa bildurik, ahoz ere baloratuko da.

Ikasturtean zehar luzatzen diren formakuntza eta berrikuntza jarduerak ekainean baloratuko dira.

5.2.- IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK.

Hauek izango dira, orokorrean, jarduera bakoitza baloratzeko kontutan hartuko ditugun irizpide nagusiak:

- Irakaslegoaren asebetetasun maila, poztasun orokorra, bere espektatibak noraino bete diren.
- Geletako jardunetan txertatzeko zein puntutaraino baliagarriak izan diren.
- Banatu diren eta sortu diren materialak baliagarriak izan diren.
- Formatzaileak izan diren kasuetan, horiekiko iritzia ere jasoko da.
- Erabili den metodologia egokia izan den.
- Landu diren edukiak egokiak izan diren, ondo egokitu diren irakaslegoaren jakinminarekiko.
- Hasieratik markaturik zeuden helburuak noraino bete diren baloratzeko 1tik 10era seinalatuz adieraziko dute partaide guztiak jarduera bakoitza bukatu orduko. Bataz besteko zifra aterako da. Analisi kuantifikatibo horrekin batera, analista kualifikatiboa ere egingo dugu, aipaturiko inkesta horietan iritzia, hobetzeko proposamenak, azkenfinean kritika eraikitzaileak egiteko aukera eskeiniz.

5.3.-TRESNAK.

Alde batetik asistentzia kontrolatuko da eta %80ean parte hartzea izango da gutxiengo bat ontzat emateko irakasle bakoitzaren inplikazioa.

Hortik aurrera, aipatutako inkesten bidez jasoko dira iritzi eta ekarpen guztiak. Taldean esplizitatuko dira garrantzitsuak diren aspektuak, partekatu nahi direnak. Kuantitatiboki, 1etik 10era baloratzuz eta kualitatiboki, puntu indartsuak, ahulak eta hobetzeko proposamenak azalduz balorazioa egingo da.

Ikasturte bukaera aldera, maiatzean, balorazio orokorra egiterakoan, zein proiektutan jarraitu nahi den eta zeinetan ez ere aztertuko da, erabaki berriak hartzeko une horretan.

Eredu gisa, tresna digitalen erabilpenean aritu ondoren, beteko dugun plantila txertatuko dugu.

TRESNA DIGITALEN ERABILPENEAN BURUTURIKO BARNE FORMAKUNTZA.

Baloratu 1etik 10era jasotako formakuntza saioen atal Hajek.

Oharretan zure iritzia, hobetzeko proposamenak... idatzi dezakezu.

1.- Edukia: bideo eta argazki kamara, soinu grabatzailea, Audacity-ren erabilera, fotos narradas, Movie Maker, Nero, site (helbide interesgarriak)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Oharrak:									

2.- Metodologia eta jasotako materiala: talde txikitik lan egiteko modua, sitean banatu edo zintzilikatu diren apunteak eta gure artean dakiguna partekatzea.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Oharrak:									

3.- Tresna digitalak eta eskolako ordenagailuen funtzionamentua.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Oharrak:

4.- Asebetetze maila eta norberak ateratako etekina.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Oharrak:

5.- Barne formakuntzaren antolaketa.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Oharrak:

6.- Datorren ikasturtean gai eta antolaketa honekin jarraitzeko gogoia.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Oharrak:

6.- JARDUEREN ORDU KOPURUA.

JARDUERA	DISEINATU ETA KOORDINATZEKO	FORMAKUNTZA	EZARPENA
1- Teknologia berriak	Web orria 10 ordu	10 ordu	1. hiruhilabetean
	Tresna digitalen erabilpena 10 ordu	14 ordu	2. hiruhilabetean
2-Gatazkak eraldatzeko prozedurak	8 ordu	12 ordu	1. hiruhilabetean
3-Elkarbizitza positiboa mintegia	12 ordu	22 ordu	Ikasturte osoan zehar
4-Proiektu telematikoa: Pelutxe	8 ordu	10 ordu	2. eta 3. hiruhilabetean
5-Proiektu telematikoa: Asmakilo	8 ordu	10 ordu	2. eta 3. hiruhilabetean
6- Ikaskuntza kooperatiboa	LH etapako bileretan 33 ordu	30 ordu	Ikasturte osoan zehar
	LH eta HH batera bilerak 12 ordu		
OSOTARA ORDUAK	109 ordu	108 ordu	Ikasturte osoan zehar

7.- PROIEKTUEN LABURPEN KOADROA.

PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUAK.

2012/13 IKASTURTEA

1. HIRUHILABETEA	2. HIRUHILABETEA	3. HIRUHILABETEA
GATAZKAK ERALDATZEKO PROZEDURAK <i>12 ORDU</i> <i>URRIAREN 10, 17,24,31</i> <i>AZAROAREN 7, 14an</i> WEB ORRIA <i>IRAILEAN, SAIO BAT, 2 ORDU</i>	TEKNOLOGIA BERRIAK <i>TRESNA DIGITALAK, 7 SAIO, 14 ORDU</i> <i>OTSAILAREN 6,13,20,27</i> <i>APIRILAREN 10,17,24</i>	IRALE <i>HAUR ETA GAZTE LITERATURA.</i> <i>MAIATZEAN</i> <i>4 EDO 5 SAIO.</i> <i>8 EDO 10 ORDU</i>
IKASKUNTZA KOOPERATIBOA. HH ETA LH <i>TALDE OSOA BILTZEKO SAIO BANA IRAILEAN, AZAROAN, URTARRILEAN, MARTXOAN, MAIATZEAN ETA EKAINEAN.</i> <i>6 SAIO, 12 ORDU</i>		
PELUTXE PROIEKTUA HH 5 URTEKO GELAN ASMAKILO PROIEKTUA LH 1. ETA 2. MAILAN		
ESKOLA 2.0 DINAMIZATZAILEENTZAT MINTEGIA. FORMAKUNTZA IKASTURTE OSOAN ZEHAR.		
ELKARBIZITZA POSITIBOA MINTEGIA. FORMAKUNTZA IKASTURTE OSOAN ZEHAR.		
KALITATEA HEZKUNTZAN SAREA MINTEGIA ??... FORMAKUNTZA IKASTURTE OSOAN ZEHAR.		



